

Aretxagazeta

ETA GAINERA...


Ze barri?

ESKORIATZA

**Perretxikoak nagusi
asteburuan /06**

LEINTZ GATZAGA

**Bisitari ugari
izan zen zubian /07**

A black and white portrait of an elderly man, Joaquin Barbero, wearing a dark beret, glasses, a light-colored striped shirt, and a dark sweater. He is looking directly at the camera with a slight smile. The background is a blurred outdoor setting.

**JOAQUIN
BARBERO**
ARETXABALETAKO AITONA

ZABOR ZERBITZUA: %25 GARESTITU/4 • HEZKUNTZA: KURTZEBARRI ESKOLA/5

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 16
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 17
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK	
SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

BERTSO ESKOLA
Leintz Bertso Eskola abian jarri nahi dutela eta, izena eman nahi duten gaztetxoek Loramendira jo behar dute, urriaren 27a baino lehen. Bertso eskola 9 eta 11 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago, eta urriaren 29an hasi eta San Juanetan bukatuko da ikastaroa. Eskolak egubakoitzetan izango dira, 17:00etan. Matrikula 20 euro, eta Loramendiko bazkideen seme-alabentzat 15.

KZGUNeko IKASTARoAK
Urriaren 18tik 29ra, oinarriko Internet ikastaroa. Informazio gehiagorako galde egin Markole kaleko 6. zenbakian.

PASTORALGILE BERRIEI DEIALDIA ELIZBARRUTIAK
Honako lanetarako behar dira: parrokia garbitzeko, liturgiak irakurtzeko, katekesia emateko eta osasun pastoraltzat jarduteko. Lan horietarako gertu zaudetenok sakristian eman dezakezue izena.

NAGUSIEN DANTZA TALDEA
Nagusien dantza taldeak dei egin du kide berriak taldera erakartzeko. Talde bi daude: eguen iluntzeetako, eta egubakoitz arratsaldetako. Esku hartu nahi baduzu, Leizarra Musika Eskolara jo.

LORAMENDIRENAGENDA

IKASTARoAK HASTEAR
Urriaren 20an hasiko da Loramendik antolatutako bainika ikastaroa. Eskulana, berriz, urriaren 19an hasiko da. Gabonak arte iraungo dute biek hala biek.

ZANKO IKASTARoA
Zanko ikastaroa antolatu du Loramendik. Izenematea urriaren 20an bukatu, eta 22an hasiko da ikastaroa. Egubakoitzetan izango dira eskolak.

ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN

Udalak dirulaguntza eman Zاراia zinemarako


Udalak 460.000 pezetako dirulaguntza eman zion Cruz Maria Ansoalde enpresari, Zاراia zine-man filmak eskain zitzaizkion. Kontua da aurreko denboraldian galera ekonomikoak izan zituela enpresak. Urte bukaera arteko hitzarmena egin zuten bi aldeek, baina luzatzeko aukerarekin.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Gibelaundi"

Gibelaundixa
— *Gibelaundi samarra ezpalitz ardurak itto-ko leukie.*



JON IRAEGI

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

- HELDUEN LITERATURA**
- 'Zirkulua' / Andoni Urzelai
 - 'El club Dante' / Mattheu Pearl
 - 'Angeles y demonios' / Dan Brown
 - 'El bosque de los pigmeos' / Isabel Allende
 - 'El hijo del acordeonista' / Bernardo Atxaga
 - 'Delirio' / Laura Restrepo
 - 'La estrella de Babilonia' / Barbara Wood
 - 'El lado frío de la almohada' / Belén Gopegui
 - 'La noche del oráculo' / Paul Auster
 - 'Cola' / Irvine Welsh
 - 'El anillo: La herencia del último templario' / Jorge Molist
 - 'La villa' / Danielle Steel
 - 'Shimriti' / Jorge Bucay
 - 'Cuentos para pensar' / Jorge Bucay
 - 'Koba el temible: la risa y los veinte millones' / Martin Amis
 - 'Hasta siempre, mujercitas' / Marcela Serrano

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

Adi!

Zorionak! Zorionak! Zorionak!

EKAINAREN 7tik AURRERA
Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...
Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria**-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

Arotz lanetan behar duzun guztia

AZKARATE AROZTEGIA
Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

ARDATZA
Brikolaketa
Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA

MAITE
ILE APAINDEGIA
Sarasate 1 behea
Tel. 943 79 59 05
ARETXABALETA

SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA ZENTROA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)

Lezama komertzial zentroa
Santa Kurtz 24
20550 ARETXABALETA
Tel.: 616 965 795

ATREBENTZIAEZPADA/ Ze moduz pasetan dozu Jubilauen Egunen eta fango zara?



CARMEN ABENDIBAR
erretiraue




MARIA ALDAI
erretiraue




MANUEL GONZALEZ
erretiraue



GREGORIA LOZANO
erretiraue



ANTONIO LASKURAIN
erretiraue



SANTIAGO LONBIDE
erretiraue

Bai, ni urtero faten naz eta ederto pasetan dot. Oso ondo hartzen gaittue, eta jana be oso ona egoten da. Ikusgarri pasetan dot, ambiente oso politta egoten da eta.

Aspaldixen ez naz egon. Lehen, bai, makiña bat bider, baiñe oin gizona ez da gauze. Fan izen garenien oso ondo pasau izen dogu. Dantzan premixo asko ataratakuek gare gu!

Bai, faten naz jubilauen eguneko bazkarire eta oso ondo ibiltten gare. Edade igualeko jentie batzen gare, eta egun ederra pasetan dogu. Bazkarixe ondo, eta dantzie be ederto egoten da.

Azken urtietan ez naz fan, baiñe aspaldi bai. Oin goixien badauket zer egin, eta berandu fateko, hobeto ez fatie! Goguen dauketenez, dantza asko egitten geuen bertan.

Bai, tiketak hartute dittut. Andriez fateko asmue dauket. Aspaldixen urtero faten gare bixok. Gustoko eguna dot, baiñe lehen dantzan gehixau egitten geuen. Oin, barriz, gutxiau.

Lehen faten nitzen, baiñe oin ez. Edozer gauza jatie prohibidute dauket, eta bazkarire ezin naz fan. Andrie be ez doie. Egixe esatiarren, gustora juengo nitzake, baiñe ze egingo dozu!

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK LEIHOAK GARBITZEN Sarritan gertatzen da leihoak kanpotik zelan garbitu ez dakigula, askotan iristea oso zaila izaten baita. Joan den astean, Iturrigorri frontoi aurrean dauden etxeetako leihoak garbitu zituzten langile bik. Beharrezko neurriak hartu eta zintzilik jarrita, kristalak garbitzen ibili ziren. Balentria eta profesionaltasuna erakutsi zuten kristal garbitzaileek. /M.A

ETABARRUAN...

GIZARTEA /04

Erretiratuen eguna

Herriko 300 erretiratu elkartuko dira bihar, jai giroan euren eguna ospatzeko kirol etxean.

ZERBITZUAK/04

Zaborra %25 igoko da

Urtarriletik aurrera nahikoa garestituko da zabor zerbitzua: %25 garestiagoa izango da.

HEZKUNTZA /05

Kurtzebarri inauguratu

Urriaren 23an inauguratuko dute Kurtzebarri eskolaren eraikin berria. Herriko Plazan dago.

ASTEKO DATUA

2.006

KIROL ETXEKO BAZKIDEEN KOPURUA

Kirol etxeak 2.006 bazkide ditu. Horietatik 1.791 aretxabaletarrak dira, biztanleriaren %28,5. Aretxabaletako kirol etxearen bazkide diren debagoiendarrak, berriz, 372 dira, %20,7.

BESTEKE SANA


“

Zirkulua liburuko pertsonaia guztietan badago zerbaiz izateko nahia, eta nigan ere halako

zerbaiz egongo da, gaurko gizartearen gero eta gehiago baitago grina hori, eta iruditzen zait telebista mundutik sorrarazten dela. Ez dakidana da nahita bultzatutako gauza bat ote den edo ez, baina badago. Egungo gizartearen entzutsu ez dena, ez da ezer; zentzu batean bada ere; hau da, norberarentzat izango da, baina norberaren proiektzioa ez da ezer; ez baldin bada entzutsua. Orain, neuk pertsonalki, ez nuke ezer egingo horrelakoa izateko. (...) Liburuan kontatzen den moduan, estatu batek ez baldin badu areririk, ez dauka armadaren beharrik. Klean ez badago arriskurik, ez da behar polizia.

ANDONI URZELAI
'ARGIA'/04-10-07

HERRITARREN BERBAK/ Anjel Bergaretxe



Alberto

Ez zait asko gustatzen hildakoei buruz idaztea. Alberto baino gertuago nituen pertsonak hil direnean ere ez dut egin. Bestalde, Alberto nik baino hobeto ezagutzen zutenak asko daude. Eta hala ere esatera noa.

Alberto, nik gogoratzen dudana bezala, potro handi bat zen. Eta ez dut honekin esan nahi lanik egiten ez zuenik. Alderantziz. Langilea zen oso. Zerbaiz egin behar zuela bururatzen bazitzaion, hori zuen helburu nagusi, eta oztopoak oztopo, ez zuen atsedunik izango hura burutu arte.

Baina hori bai, egiteko nagusi horren inguruko beste hainbat gauzatxo ahaztu egiten zen: dantzari, txistulari, eta abarrei denboraz abisatu behar zaiela, adibidez. Edota nork, noiz eta nola ordainduko zituen gastuak. Garrantzitsuen, pentsatutakoa egitea zen, eta ez zuen beste txorrada horiekin burua nekatuko.

Horregatik, niri behintzat beldurra ematen zidan proiekturen batekin zetorrean. Banekien azken orduko sorpresa bat izango genuela. Baina ziur egoten nintzen baita, azkenean egin egingo zela, eta txukun egin gainera.

Ordu asko (eta bere poltsikotik dirua ere bai, ziur nago), eman zituen Aretxabaletaren alde. Baina beti anonimotasunean. Ez zuen inoiz inongo protagonismorik hartzen, eta beraz jende asko egongo da ez dakiena gure herrian egin diren hainbat eta hainbat

ekintzen atzean Albertoren lana eta izerdia (ez gutxi hemendik be!) egon zirenik.

Hain zuzen ere, honek animatu nau lerro hauek idaztera, berarekiko zorra apur bat behintzat leuntzeko balioko dutelakoan. Omenaldi bat izan gura dute hitz hauek, baina omenaldirik onena, bere lekukoa hartu eta lanari ekitea litzakeelakoan nago. Bidea erakutsi zigun.

Eskerrik asko Alberto!

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Maria Agirre

ERREDAKZIOA
Maria Agirre

MAKETAZIOA
Alex Azkarate
Imanol Soriano

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Su garrak herrixen

Susto galanta hartu nauen fan dan smartitzenien. Zubixe pasau barri, banetorren herrire, eta sartiaz bat bonberuek ikusi! Su garrak ez nittuen ikusi, baiñe nahikue ke zabaldu zan inguruen. Gazten batzuk okupatute ei zeukien etxeren bat **Tubos** inguruen, eta harek su hartu.

Su kontuekin jarraituko dot, jakingo dozue eta, **Su Ta Gar** taldie datorrena herrire. Datorren zapatuen izengo da kontzertue, eta herriko eta Aramaioko bi talde telonero arituko die. **The Ruder** eta **Zona Catastrofica** deukie izena. Oin be izenak asmaketan dittue! Uste dot nahikue nerbioso dazela talde bixetako musikuek. Ezta gutxiaurako, Eibarko taldien aurrien ondo geratu bihera dau gero! Pentsetan dot jo ta su arituko ziela zubixen kantuek entrenetan.

Izen be, talde inportantien aurrien ondo geraketie ez da fazile. Zapatuen realeko infanti- lek etorri, eta UDako gaztieiri 13 gol sartu. Ikusten dan ez zien errukitu realekuek. Eta gainera, herriko batek, **Beñat Etxabek** gol bi sartu zittuen. Eskerrak domekako partiduen preferentekuek irabazi egin euien txantxikuen kontra. Dakitzuen moduen, hau danau nire txorixek kontau dozt, lanien egon da ta.

GIZARTEA/ Bihar goizean hasiko dira ekitaldiak, eta bazkaria kirol etxean izango da.

Herriko 300 erretiratu elkartuko dira bihar kirol etxean euren eguna ospatzeko

MARIA AGIRRE

Aretxabaletako erretiratuen-tzat egun garrantzitsua izango da biharkoa, 300 inguru elkartuko baitira jai giroan egun polita igartzeko. Herriko udalak gertu du erretiratuen egunerako egitaraua. Meza, bazkaria eta dantzaldia izango dira nagusi, besteak beste.

Adin askotariko erretiratuak elkartuko dira bihar, 65 eta 90 urte bitartekoak. Herriko gizon eta emakume zaharrenek, baina, omenaldia jasoko dute: Ascension Remiro Corres eta Joaquin Barbero Sanchezek. Emakumeak 99 urte ditu eta gizonak 98 beteko ditu abenduan. Ascension ez da Aretxabaletan bizi, herrian erroldatua badago ere. Egun, Nafarroako zaharren egoitza batean bizi da, baina Udalak helaraziko dio oparixoren bat, herriko emakumerik zaharrena den erakusle. Joaquin, berriz, Aretxabaletako zaharren egoitzan bizi da, baina azken urteetan legez, ez da bazkarira joango. Hari ere oparia emango diote.

EGITARAU OPAROA

Biharko antolatutako egitaraua urterokoa da. Goizean salda hartzeko aukera izango da Basotxon, 11:00etatik aurrera, eta 12:30ean parrokiaren meza. Ondoren bazkaria kirol etxean, 13:30ak inguruan. Eta indarrak hartutakoan, dantzaldia Aretxabaletako Ludi-berri taldearekin, opari banaketa eta zozketak izango dira. Aurten bidaia bat eta telebista aparailu bat emango dituzte opari. Iaz, esaterako, itsasontzi batean bidaia egin zuten irabazle atera zirenek. Zazpi euro ordaindu behar dira bazkariagatik.

Dagoeneko 300 lagunek egin du izenematea, eta Udaleko Begoña Arenaza Gizarte teknikariak adierazi digunez, aurreko urteetan ez bezala, aurten 65 urte inguruko jende asko animatu da.

EGUNAREN ZAIN

Begoña Arenazaren arabera, erretiratuak egun hori noiz iritsiko zain izaten dira. Urtean izaten dituzte beste ekitaldi batzuk ere, baina biharkoa bereziena izaten da. Giro ona eta ondo pasatzeko gogoia izaten dira nagusi.




Erretiratuek bazkaria eta dantzaldia izaten dituzte gustukoan.

JOAQUIN BARBERO / ARETXABALETAKO AITONA, 98 URTE BETETZEAR

"Baina nondik joaten da Arrasatera?"

Joaquin Barbero Aretxabaletako gizonik zaharrena da; zelanbait esateko, guztion aitona. Abenduaren 18an beteko ditu 98 urte. Mendea betetzeko gutxi falta zaio Joaquini, baina 100 urteen kontua aipatuta, muga horretara ez dela iritsiko uste du. Batzuetan burukomina izaten omen du, eta abuztuan, kalean zela, jausi egin zen,



eguzkiak traba eginda. Ezkor samarra den arren, osasunez ondo dago 58 urterekin Aretxabaletara iritsi zen gizona. Salamancatik etorri

zen, bere seme eta emazteak hala eskatuta. Gustura bizi zen Salamancan nekazari lanetan, baina emazteak *ultimatum* eman zion. Aretxabaletara etorri zenean, lehen hiru hilabeteetan Coprecin, baina segituan Beroan hasi zen lanean, eta bertan egin zituen 14 urte. Gogoan du Joaquinek herrira etorri eta Coprecin lanean hasteko

Arrasatera izena ematera joan behar zuela esan zioten unea. "Baina nondik joaten da Arrasatera?". Hori izan zen bere erantzuna.

Gaur egun, herriko zaharren egoitzan bizi da Joaquin, eta gurekin solasaldia bukatutakoan banketxera joan zen, hori bai, bakar-bakarrik, halako kontuetan ondo moldatzen da-eta.

LABUR


Urtarriletik aurrera zabor zerbitzua %25 garestituko da

Mankomunitateak egin duen ikerketa baten arabera, zaborraren kostua asko igo da azkenaldian. Hori dela eta, zerbitzua garestitu egingo die udalei, eta udalek herritarrei. Urtarriletik aurrera %25 garestiagoa izango da zabor zerbitzua. Dirutan, baina, igoera ez da handiegia izango. Orain arte hamar euro ordaindu badugu hiru hilabeteen, aurrerantzean ia 13 euro izango dira.

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Pizzak
Oilaskoak eta
paellak eramateko



KiXkur

ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala
Ile-luzatzeak
Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA



Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

KIROLA/ Urriaren 27an egingo dute bigarren bilera

Kirolaren inguruko hausnarketa hasi dute Udalak eta herritarrek

M.A


Joan den astean egin zen lehenengo bilera, eta urriaren 27an egingo da bigarrena. Herriko kirol etxearen inguruan eta orokorrean kirol jardueren gainean hausnartzea da helburua. Hau da, Udalak egiteko asmoa duen kirol etxeak zelakoa behar duen izan, besteak beste.

Herriko kirol eraikinen egoera kaskarra dela ikusita, Udalak kirol etxe berria egitea aurreikusten du. Hala ere, oraindik ez dago ezer zehaztuta. Hala, herritarren iritziak zeintzuk diren jakin nahi du Udalak, eta helburu horrekin, joan den astean bilera egin zen. Hamasei bat lagun hurbildu ziren bertara. Urriaren 27an egingo da bigarren bilera, eta orduan zerbait zehatzagoa adostea espero da.

HAUSNARKETAK

Bilerara gerturatutakoek hainbat hausnarketa egin zuten. Esate baterako, kantxak eta frontoia desberdintzearen alde egin zuten batzuek. Segituan, baina, igerilekuaren gaia atera, eta herriak igerileku egokia behar duela esan zuten. Igerileku horrek non eraiki eta zelakoa izan beharko lukeen zehazterakoan, askotariko ideiak jarri zituzten mahai gainean.

Izan zen, bestalde, Gasteiz eredu hartuta, kirol eta kultur jarduerak batu eta gizarte etxe bat eraikitzearen alde azaldu zenik



Igerileku berria behar dela uste du hainbat herritarrek.

ARETXAGAZETA

ere. Horren harira, Udaleko ordezkari batek esan zuen Herriko Plaza indartzea dela Udalaren asmoa, eta kultur arloetarako eraikin berria bertan egiteko asmoa duela. Era horretan, kultur eta kirol jarduerak nor bere tokia izango dute.

PROIEKTUA AGINDU

Abendurako bukatu nahi da hausnarketa prozesua. Ordurako zehaztuta izango da zer nahi eta behar duen herriak kirol arloan. Ideia horiek eskuetan, Udalak lehiaketa deituko du arkitektoek proiektuak aurkez ditzaten.



Datorren zapatuan inauguratuko dute

Urriaren 23an inauguratuko dute Kurtzebarri BHI (Bigarren Hezkuntzako Institutua). Eguerdian gonbidatuei harrera egingo diete, bai inguruko udaleko eta Jaurlaritzako kideei ere. Herritarrek, gainera, eraikina barrutik zelan geratuko den ikusteko aukera izango dute. Ondoren, luntxa izango da Herriko Plazan. Gauean, berriz, kontzertua izango da kirol etxean. Su Ta Gar taldeak joko du, baina aurretik, The Ruder eta Zona Catastrofica taldeak arituko dira.

LABUR

Tubos inguruan, Kamiñerokue baserrian, sutea gertatu zen joan den martitzen gauean

Joan den martitzenean, 21:00ak aldera, kea ateratzen hasi zen Kamiñerokue baserrietik. Etxe hori hutsik egon da azken urteetan, baina azkenaldian gazte batzuk izaten ziren bertan. Kea ateratzen zebilela ikusita, inguruko bizilagunek suhiltzaileei deitu zieten, eta Zubillagako suhiltzaileek bi kamioi ekarri zituzten sua itzaltzeko.

Udaltzainek jakinarazi dutenez, behin baino gehiagotan agindu zieten baserrietik ateratzen bertan izaten ziren gazteei. Hiruzpalau aldiz joan ei ziren agindu horrekin. Gazteak, baina, berriro itzultzen ziren. Uztaiaz geroztik egoten zen gazte koadrila bat Kamiñerokue baserrian.

Jou Díaz

Karakina
 Loramendi 1
 Tel.: 943 79 71 69
 20550 ARETXABALETAK

Mobiliario
ARENAZA
 • ALTZARIAK
 • DISEINUA
 • APAINKETA
 Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
 ARETXABALETAK

GARBITU S. KOOP
Garbiketa
orokorrak
 Errekabarren 3- Behea
 ARETXABALETAK
 Tel.: 943 79 01 28

Hemen
GARBIKETAK
 Garbiketetan profesionalak gara
 www.hemen-garbiketak.com
 Intxartxueta 16 behea
 ESKORIATZA
 Tel.: 943 71 48 45 Faxe: 943 71 30 58

KTIPOS

ZAPATA DENDA

 Murubide 2 behea • Aretxabaleta • Tel.: 943 53 37 33

Zenbaki
 • Kontabilitatea
 • Fiskalitatea
 • Lana
 • Juridikoa
Aholkularitza
 Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETAK
 Tel.: 943 71 21 12 - Faxe: 943 71 22 68

SANER
ITURGINTZA
 Nafarroa 8, 2-A
 ARETXABALETAK
 943 79 64 91
 605 71 66 92 / 629 47 72 70

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko urriaren 15a / 182. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Zuriñe Velez de Mendizabal • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99.

Perretxikoak protagonista asteburuan Eskoriatzan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Asteburu honetan mikologiari buruzko jardunaldiak egingo dituzte Eskoriatzan. Luis Ezeiza guraso elkarteak antolatu du eta Eskoriatzako Udalak eta Laudioko Mikologia Elkarteak lagundu dute antolaketa. Perretxikoen mundua hobeto ezagutzeko aukera.

Zapatu eta domekan mikologiari buruzko jardunaldiak egingo dituzte Eskoriatzan, Luis Ezeiza guraso elkarteak antolatuta. 2000. urtean hasi ziren urtero ekimena antolatzen. Bosgarren aldiz egingo dute aurten. Izan ere, hasiera dataren aurretik eginga zuten erakustaldiren bat edo beste, baina aurrekontu faltagatik utzi egin zuten.

Rafael Salido Luis Ezeizako Guraso Elkartearen lehendakariak esan duenez, "geroz eta zale gehiago daude, eta horregatik egiten dugu mikologia erakusketa". "Gainera, batzuentzat *hobby* hutsa da; mundu horretaz ezer ezagutzen ez zuten askorentzat, pasioa sortzen duen jarduerak da", gaineratu du.

Aurten, baina, ekimena zabaldu egin gura izan dute, eta horre-

gatik herritar guztiei zuzenduta hainbat hitzaldi antolatu dituzte. "Hala, osatuago egongo da mikologiari buruzko ekitaldia".

PERRETXIKOEN MUNDUA EZAGUTZEN

Biharko, urriak 16, mendi irteera prestatu dute. 09:00etan Gorosarri plazatik irtengo dira bertan esku hartzera animatzen diren lagunak. Batzuk taldeetan joango dira;

beste batzuek euren aldetik egingo dute txangoa. Antolatzailiek parte-hartzaileen txoko ezkutua sekretuan edukitzea gura dute. "Ikasle askok familian egingo dute irteera", eman du aditzera elkarreko lehendakariak. Denetik jasoko dute, bai jan daitezkeenak eta baita jan ezin direnak ere.

Arratsaldean berriz, goizean jasotakoa sailkatu egingo dute. Horretarako, 16:30ean elkartuko dira Luis Ezeiza eskolako jantokian.

Jarraian, 18:30ean, *Euskadiko perretxikoak* eta *Perretxikoak eta euskal sukaldaritza* hitzaldiak egingo dituzte eskolako areto nagusian. Laudioko Mikologia Elkartearen kideek egingo dute berba bertan. Herritar guztiak gonbidatu gura dute gurasoen elkarteak hitzaldietan parte hartzeko. Izan ere, "jende guztiak ulertzeko moduko gaiak izango dira mintzagai; hala nola, non aurki daitezkeen perretxikoak, nola bereiztu, jateko nola prestatu..."

Domekan berriz, aurreko egunean jasotako perretxikoak ikusgai jarriko dituzte herriko plazan, 12:00etatik 14:00etara. Gainera, dartzeko aukera ere izango dute bertaraten diren guztiak: perretxiko-patea, kroketak...

"Erakusketan, gutxienez 200 perretxiko mota egotea gurako genuke"

"Perretxikoen munduaz ezer ulertzen ez dutenek parte hartzeko hitzaldiak dira"



XV. Mendi Bizikleta Ibilaldia

XV. Mendi Bizikleta Ibilaldia antolatu dute Eskoriatzako Mendi Bizikleta Taldeak eta Udalak. Domekan, hilak 17, izango da hitzordua eta ibilbideak 40 kilometro izango ditu. Mazmela, Marin, Jarindo, Kurtzeta eta Landatik pasatuko dira, besteak beste. 09:00etarako Eskoriatzako herriko plazara joan eta bertan egingo dute interesatuek izenematea. Duela pare bat urte 184 lagun animatu ziren parte hartzera; iaz 210. Antolatzaileren esanetan, geroz eta ezagunagoa da proba, eta horrek geroz eta jende gehiago etortzea dakar. Kaskoa eraman beharko dute parte-hartzaileek.



Bainuetxe parkea zaintzea Landu enpresaren esku

Ederlan pareko parkea, hau da, Bainuetxe parkea zaintzeko ardura izango du aurrerantzean Landu enpresak. Izan ere, lan hori esleitu dio Eskoriatzako Udalak. Herriko kaleez arduratzen da enpresa hori; bertako lorategiak eta abar zaintzea euren esku dago. Orain, euren lan esparrua zabaldu eta parkea txukun egoteaz arduratuko dira. Landu enpresak urteko 20.334 euro jasoko ditu Eskoriatzako Udalaren eskutik lanok egiteko. /Z.V.M.

LABUR

Amuskak irteera antolatu du Soriara urri bukaerarako

Eskoriatzako emakume taldeak, Amuskak, urriaren 30erako bidaiara prestatu du. Soria aldera joango dira. Izena emateko aukera izango dute interesatuek urriaren 18an eta 19an kultura etxean, 18:00etatik 19:00etara. Bazkide eta ez bazkideek har dezakete parte txangoan. Hala, bazkideek 40 euro ordaindu beharko dute; 45 euro Amuskakoak ez direnek. Bidaiaren gastu guztiak prezio horren barne daudela eman du aditzera emakume taldeak.

LAU URTERAKO LANA IZANGO DU BAKE-EPAILE BERRIAK

Bake-epaile izateko deialdia zabalik dago

Z.V.M.

Eskoriatzako bake-epaile lanposturako deialdia egin du Udalak. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 20 eguneko epean egin beharko dira eskaerak. Hautatuak lau urtean bete beharko du lan hori. Epaileak ez du ordainsaririk jasoko.

Eskoriatzako Udalak bake-epaile lanposturako deialdia egin du. Kargua lau urterako izango dela eman du aditzera Udalak. Bestalde, lan hori egiteagatik ez da ordainsaririk jasoko.

Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 20 egun izango dituzte interesatuek eskabidea egiteko. Hautaketa prozesuan kontuan hartuko du epai-mahaiak, besteak beste, bake-epaile funtzioari buruzko elkar-rrizketa pertsonala. Bestalde, ikasketek ere garrantzia izango dute hautaketa prozesuan.

Lanpostura aurkezteko hainbat baldintza bete behar dira: adinez nagusi eta Espainiako nazionalitatea izatea; lanean diharduen abokatu edo prokuradorea ez izatea eta kargu politiko sindikalik ez betetzea, esaterako. Informazio gehiago, Udaletxean.



Herriko plazan dago Eskoriatzako Bake-epaitegia.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

HITZALDIA
Datorren eguaztenean, hilak 20, *Munduari buelta bizikletaz* hitzaldia eskainiko du Eneko Etxebarrieta abenturazaleak. 18:30ean izango da hitzordua, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

LAGUNTZAILE BILA
Parrokiako garbiketako taldea osatzeko, liturgian irakurle izateko, katekesia emateko eta beste hainbat lanetarako boluntarioak behar ditu Eskoriatzako elizbarrutiak. Izena eman daiteke sakristian edo parrokiako bulegoan.

AXTROKIRENAGENDA

NAFARROA OINEZ
Lizarran ospatuko den Nafarroa Oinezera joateko asmoa duten eskoriatzarrentzat autobusa egongo da domekan, hilak 17. Hala, 08:50ean Akeita kafetegi aurretik irtengo da; 19:30ean itzuliko dira.

Jende ugari gerturatu da asteburuan, Gatzaga ezagutzeko asmoz

Z.V.M.

Oso herri bisitatu da Gatzaga. Inguruak eta herriak berak ematen dituen aukerak kontuan hartzen dituzte bisitariak. Hala, inguruko landetxeak beteta egon dira asteburuan. Bestalde, ehun lagunetik gora jaso ditu Gatz Museoak; pozik itzultzen dira etxera bisitalditik.

Lau eguneko jaieguna izan dute askok eta askok iragan asteburuan. Horrek bultzatuta, jende ugari gerturatu da Gatzagara. Batzuk egun pasa etorrita; beste batzuk, aldiz, lotarako tokia hartu eta herrian geratu dira.


Landetxeak ere nahiko beteta egon dira lau egunetan. Ez dira soilik Euskal Herriko bisitariak izan; toki askotako lagunak etorri dira Gatzagara. "Kanariar Uhartetatik, esaterako, neska bat etorri da asteburuan", eman du aditzera Aterbeko Marian Martinek. "Bestalde, ingeles batzuek aspalditik zuten tokia hartuta, baina azkenean, bertan behera utzi zuten eskaera". Horrek azken orduko

Jendea oso pozik geratzen da, besteak beste, Gatzagan ematen dioten tratuagatik

bisitariak jasotzeko aukera eman diela gaineratu du Marianek. "Bertaratu den pertsona oro oso pozik geratu da Gatzagan aurkitu duenarekin", eman du aditzera.

Gainera, udan ere kanpoko jende asko izan zutela gogorarazi du: "Batez ere katalanak etorri ziren". Hala, Gatzagaren izena estatuan zabaltzen ari dela uste du Martinezek, eta "hori onuragarria izango da herriarentzat".


30 LAGUN EGUNEAN
Bestalde, bisitari asko erakartzen ditu Gatz Museoak, eta jaiegunak hura ikusteko aprobetxatzen dituzte askok. "Horrela izan da oraingoañ ere. Hasiera batean



Museoak jende asko erakartzen du; asteburuan, eguneko 30 lagunek bisitatu zuten.

zapatu eta domekan jende gutxiago etorriko zela uste genuen arren, azkenean, jende mordo gerturatu da lau egunetan Gatzagara", adierazi du Aitziber Gorosabel

museoko arduradunak. Izan ere, gutxi gorabehera 30 pertsona etorri dira egunero Gatzagara; bai herria ezagutzera, baita bere historia entzuterera ere.



FAGOR

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, S. Coop.

Torrebaso 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
SPAIN
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21



Boboli jaka
HAURRAK UMEEN MODA
Lezama zentro komertziala 15 Aretxabaleta



Francesco Biasia poltsa
LIE LURRINDENDA
Mitarte 18 Aretxabaleta



Passionata barruko arropa
XARMANTA OPARIAK
Gaztainadui 21 Eskoriatza



Lite Kiss barruko arropa
LEINTZ ROSSI MERTZERIA
Errekabarren 3 Aretxabaleta



Neskentzako botak
M^a CARMEN OINETAKOAK
Errekabarren 22 Aretxagazeta

*senti ezazu
datorren
moda berria*